

ICHTORIO MICHTERIO

OGI-EZPALA ETA DEBRUAK

Behin bazen hogoi urtheko neskatcha gazte bat.

Auzo-herrian eliza-phestak izaki eta, ongi harat joan nahia zen. Galde eta galde ari zitzaion beraz nausiari:

«Nausia, utziko nauzu, egun, auzoko phestetara?»

Eta nausiak berehala:

«Phestetan baino hobekiago zaitetzke hemen, zure nausi-etchek'an-dreekin.

—Bainan, nausia, nere lagunak oro han ditezke, eta, arratsalde baten gatik, uzten ahal nindukezu? Lanez leherra eginen dautzuet gero, bihar.

—Badakit zure lagunak oro harako direla. Bainan, zu, hek guziak baino hobea zira, eta hek bezala eginez, hek bezalako zintezke laster.

—Hala ere, utzi behar nauzu, nausia... Behingoaren gatik! Hitzemana diotet han izanen nintzala ni ere.

—Joanen zira beraz, bainan hemengo lanak oro egin ondoan.

—Eginen ditut, nausia.

—Zoaz beraz gaineko sorrora eta hedatzazu, berehala, atzo garreiatu ongarri meta hek guziak.....»

*
* *

Ilhun arterainoko lan eman ziola, sosegatu zen beraz nausia. Neskatcha fur-furian abiatu zen aldiz ongarriaren hedatzen, bere lana aski tenerez bururatuko zuelako gogoarekin. Eta ari zen, ari! Hots, behin ere arizan ez zen bezala.

Bainan etsitu zuen laster, eta, gogoa ilhunik, lanetik gelditua, han zagon ongarri meta handi bati beha eta beha, noiz eta ere, brichtakoan, aintzineran heldu baitzaio... muthil gazte eder bat:

«Zer ari zira hor, neskatcha gaztea?

—Ori, ongi phestarat joan nahia, ongarri hauk ezin laster hedatuz.

—Ongarri hoik?... Zalukara hedatuak nuzke, hola nahi bazindu.

—Zuk, ba, zuk, holako jaunak!

—Nihaurek eta berak. Bainan, lehenik, hitzeman behar dautazu, *bihar goizean estekaturen duzun lehen gauza* nerea ditekela, eta nerea behin bethikotz. Bazira?... Berehala hedatzen dauzkitzut ongarri hoik oro...

—Hori baizik ez bada, ba, ba, gogotik!...»

Muthil gazteak, orduan, chichtu samin bat egiten du, eta huna bertze hogoi'ta hamar bat gizon gazte atheratzen direla auzoko chara batetarik, choragarriak oro, bat bertzea bezembat.

Eta, hor, beren eskuekin berehala, begien hesteko artean, *bir bir bir* hedatzen dute ongarri guzia; eta, lana bururatu orduko, badoazi guziak, erranez:

«*Bihar goiz arte, neskatcha!*»

*
* *

Loriatua, neskatcha heldu da etcherat, eta kucean erraiten dio nausiari: lana bururatua duela eta aldatzerat badoala.

«Lana bururatua? Zuk hedatu ongarri hura guzia?... Ez, egun, ez!

—Ba nausia, ba! Zoazi eta ikustera, sinhetsi nahi ez banauzu!»

Badoa nausia. Eta, futcho, ongarri guzia hantchet hedatua izaki, eta chehe chehea oraino!

Berriz etcheratu denean, ez jakin eta zer asma, galdetzen dio sehiari:

«Bainan, haurra, zuk ez duzu zuhaurek egin lan hura guzia? Ez zinduen astirik...

—Ez; lagundu naute, hala da.

—Lagundu? Laguntza guti dugu bazterretik! Eta bertzalde, nork zakien ere harat behar zinduela?

—Ori, nausia, ez da egia bezalakorik, huna zer gerthatu zautan...»

Eta, hantchet, oro kondatzen diozka.

Nausia harritia!...

«Galdatua hitzeman diozutela? Hitzeman, *bihar goizean estekaturen duzun lehen gauza* heiena ditekela? Dohakabea, ez bertzea! Ez duzu ikusten, zer ere baita eta, *hortan* ditekela debrukeria guzia, eta debruarekin eta haren lagunekin duzula zure goiz huntako zer

guzia?... Goazen berehala aphez baten, ikustera! Jainkoak nahiko du, agian, ez baita jada berantegi!»

Sehia zen orai izitua, harritua!!!

*
* *

Ichil ichila, nehorri deus erran gabe, badoazi biak jaun erreto-raren gana, sehia nausiari aintzinka.

Hitz erdiz, berehala, ezagutu zuen aphezak debruaren harat-hunatak zirela hek oro.

Othoitzean luzaz egon ondoan, erraiten dio neskatchari:

«Haurra, *bihar goizean estekaturen duzun lehen gauza hura* ez zen bertzerik izanen *zuhauren burua baizik*, goizean jeiki eta *zure soinekoak emanen zintuelarik*. Ama-Birjina urrikaldu zaitzu, biziki zuhaurek merezi gabe...

«Huna zer eginen duzun. Gaur-arratsean, joanen zira oherat, *hola hola*, zure soinekoetarik bat kentzen ez duzula. Gisa hortan, bihar goizean, othoitz bat eginik jeikiko zirelarik, ez duzu deus zure soinean emaiterik izanen, eta soka-muthur bat ere ez duzu estekatuko zure buruari. Ogi-ezpal ttiki bat eginen duzu, eta *hura estekaturik, hura arthikiren duzu leihotik*, oihuka erranez:

«*Huna goiz huntan nik estekatu lehen gauza. Harzazue eta ereman; zuena da.*»

*
* *

Hala hala egin zuen neskatcha gazteak, biharamun goizean, argi-zeinuak jo eta jo ari zirelarik oraino.

Eta, harek ogi-ezpal arthiki orduko, ikusi zituen sekulako debruak, ogi haren gainera jauzian jinik, hari tiraka eta tiraka, orroaz gaki zirenak.

J. BARBIER